



Ez dakit joan den igandean zu ere, irakurle hori, Zizurkil-en egon ote zinen. Hotza zen arratsalde Elbarrena-ko plazan, are hotzagoa gero ilunabarra. Joxe Arregi anaiaren gorputzaren arrastorik ez, edo hor nonbait. Madriletik arratsaldeko hiru t'erdia aldean irten omen zela zerraldoa Billa-bona aldera; eta, hortaz, gauean barrena baizik ez omen zela Zizurkil-a iritsiko. Zai egotea alferrik omen. Eta jendea, pena bihotzean, etxera joaten hasi zen: hamarka haseran, ehunka gero eta ilundu ala; eta zortziak aldean Zizurkil-go plaza ia-ia hustu arte.

Hots, kolpez, eta usterik gutxienean, bederatzia baino lehenago, berri txundigarria zabaldu zen guganaino:

- Joxe-ren gorputza Zizurkil-en zego-k.
- Nola hori, ordea?

- Bai, bai: Kostaldetik etorri duk.
Madriletik Billabonara, jakina... Bilbon eta Eibarren barrena!

Beldur ginen joko zikina, gertatua zen: PNV-aren eraginez, Araban barrena, Altsasuan, eta Gipuzkoako herrietan zai zeuden abertzale multzoei iseka eginez, Joxe-ren gorputza isilka, «atzeko atetik», lotsaz beterik nonbait, Zizurkil-a iritsia zen.

Joxe Arregi «Usurbil»-ek, ETA-ren zerbitzutan bizia eman ondoren (bizia, bai, eta nola emana!), haren borondate-rik nabarmenenaren kontra, errekupe-razio joko ziztrin nazkagarrian, «familia»-ri zor zaion errespetuaren atzean izkutatu-rik, beste zerrikeria bat erantsia zuen PNV-ak gure herriaren saldukeria az-kegabean.

Eta Elbarrena-ra bildutako jendea, horretara, ziplo hasi zen oihuka: «PNV-traidor», «PNV-traidor».

PNV-a, eta beronen morroinak, astelehenean ikusi dena ager zedin beldur ziren. Eta egia izkutatu nahiak bultzatu-rik (noiz arte ez da «ETA» sigla, «Al-derdi»n eta «OPE»n azaldu? Gazteek ez dakite, baina guk bai) gorputza desbide-razeko erabakia hartu zuen.

Zerraldoan zetorrena, ordea, ez zen gaizkile nazkagarri bat: «Ama batentzat izan behar du momentu hau nahiko latza, egun guztia tristuraz eta gaua berriz oso beltza; zuretzat pozik haundiena zure ondoan banitza, lasaitu zaitte, poztu barrena, pasako baita ekaitza».

Horra hor, irakurle hori, zapatak as-
katzeko dina ez diren oportunistak eta
traidoreak, nor lardaskatu eta izkutatu

nahi izan duten.

Eta zapatillak sekula kendu (ez ken-
duko ere!) ez dituzten jendillaje harro-
putz eta merkeak areago lotsarazteko,
honela mintzo zen gure Joxe:
«Nahiago nuke bertso horiek
balira zu alaitzeko,
neroni ere, hori jakinik,
asko nintzeke poztuko;
esan liteke jaio nintzela
herriari zerbitzeko,
nere bizia izan behar du
nonahi beti hortarako».

Ez omen da hori abertzaletasuna.
Abertzaletasuna Franco-ren delfinari
Gernikan txalo-jotzea omen da. Bapo,
mutillak!

Baina PNV-aren saldukeria erabat na-
barmen gelditu bada ere, eta oso lotsa-
garriri «Usurbil»-en kasu lazgarri hone-
tan, ez zen horretan gelditu
errekupe-razio-nahia.

Zeren-eta Joxe-k ETA-ren barruan
eman baitu bizia, eta ez talde abstraktu
eta izengabe batean. ETA-ren siglari da-
gokion lehengo letra, jakina denez,
«Euskadi» da. Eta Joxe-k bazekien, eta
Euskal Herriaren askatasunaren alde
borroka egitekotan sartu zen ETA-n.
Hau ukatzea, edo hau izkutatzeta, Elba-
rrena-ko plazan zenbaitek ukatu edo iz-
kutatu zuten bezala, errekupe-razio naz-
kagarria egiten saiatzea besterik ez da.
Sozial-inperialismoaren ideiak betirako
uxatuak eta gaindituak zirela uste ge-
nuen; bain ez bide da horrela. Eta hau
ere nabarmen ikusi genuen igandean.
Joxe, jaunak, abertzalea zen, Euskadiren
askatasuna nahi zuen, eta Euskal He-
rriaren euskalduntasuna eta batasuna bi-
latzen zituen. Guk bezala. Aspaldidanik
biziak hondatu eta galdu dituzten gu-
dari abertzale guztiak bezala.

Ezker abertzalean mogitzen garenok
ongi dakigu, eta okasio guztietan esaten,
gure herriak Euskal Herri osoa kontro-
latzeko eskubidea duela; eta, beraz, eta
oso bereziki, Euskal Herriko indar eko-
nomikoak kontrolatzeko eskubidea.
Areago: indar ekonomiko horiek gure
herriak bere eskuetan izan arte, askata-
sunik ez dagoela uste dugu. Dirurik ga-
beko «askatasun» burges horiek zer
diren ondo baitakigu. Guretzat Euskadi
sozialista eta Euskadi askatuta elkarri
datxezki; askatu behar dena gure he-
rria baita, eta ez gure burgesia Madri-
lleko burgesiaren menpetasunetik. Hau
garbi dago guretzat.

Eta horregatik ETA-k, eta euskal
ezker abertzale guztiak, eta Joxek berak
ere bai, Euskadi sozialista nahi dugu;
hau lortu arte euskal herria ez baita

bere buruaren jabe egiazki izango. As-
katasuna ez da guretzat burgesi-trukea;
baizik-eta burgesiari ekonomiaren kontro-
la kendu, eta bertako langileriari
ematea. Hitz batez, sozialismoa eraiki-
tzea.

Baina Joxe ez zen borrokalari abs-
traktua:

«Esperantzikan behintzat
sekula ez galdu,
momento hobegon bat
etorri behar du;
baldin euskal odolak
preziorik badu,
askatasuna laster
etorri behar du».

Eztabaida zaharra da hau; baina so-
zial-inperialistek ez dute oraindik sines-
ten (eta oso egokiro gogorazi du hau le-
hengoan, eta orrialde hauetantxe,
intelektual zorrotza den Alfonso Sas-
trek) Euskal Herrian guztiz inportantea
dela nazio-nahi hori. Gure herriak libre
bizi nahi du. Ez du ulertzen, eta ez ino-
laz ere onartzen, bere euskaltasuna eze-
ren izenean (edo «sozialismoa»-ren ize-
nean!) izkutatu edo galdu behar hori.
Gure herria ez du suntsitu nahi. Gure
herria ez da Españako parte bat, edo
Fraitntziakoa; eta ez du hori bihurtu
nahi. Sendimendu honek mendiak ere
mogitzen ditu; sozial-inperialistek orain-
dik sinetsi nahi ez badute ere.

Eta igandean El-
barrena-ko
asanbladan mintzatu ziren bazuk ere
ez. Eta Joxe lotsagarriri errekupe-
ratzen saiatu ziren.

Zizurkil-en, horretara, aspaldiko ur-
teetan bezala, argi-eta garbi agertu zen
nork ematen duen odola herri zorigaiz-
toko honetan; eta nork zupatu nahi
duen odol epel hori, gurea ez den hel-
buruetan. Eta izenak eman behar dira:
karlista berriak, batetik; eta oraindik ere
suntsituak ez diren sozial-inperialistak,
bestetik. Horra hor etsai bikuna, ira-
kurle hori; gaur orain dela urte mordo
bat bezala.

Joxe-ren azken hitzak hauek izan
omen ziren: «Uste diat hiltzen ari nai-
zela». Joxe euskalduna zen. Eta euskal-
duntasun hau onartzen ez dutenak, gu
beste herri bat garela irentsi ezin dute-
nak, gure hizkuntza bazterten dutenak,
«iraultza»-ren izenean etsaiaren iskuntza
(hizkuntza bai; hizkuntzak egiten baitu
aberria funtsean) erabil erazten dutenak,
gure jatorrizko bestelakotasuna beren
praktikan ukatzen duten guztiak, gure bi-
hotza bera dute kolpatzen. Eta gure
Joxe ere saltzen.